



ACT-MC-2019/0064

KONTRATAZIO-MAHAIAREN AKTA
BI ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"

Kontratuaren xedea eta gai-zerrenda: *Segurtasun arduradunaren lanak, 2010eko azaroaren 2ko 277/2010 Dekretua, larrialdi aurre egiteko zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen aplikagarri den Aldundiaren errepide sareko tuneletarako . 2.Artxibo elektronikoa irekitzea.*

Eguna: 2019ko abenduaren 18a

Hasiera/amaierako ordua: 9:15/9:45

Tokia: Bide Azpiegiturako Departamentuaren 2.gela (Miramon pasealekua, 166.)

Bertaratutakoak:

Mahaiburua: Agustín López-Dóriga Fernández, Bide Azpiegituren Proiektuetako eta Eraikuntzako Zerbitzuko burua.

Bokalak: Maider Apaolaza Lizarazu, Bide Azpiegituren eta Berrikuntza Zerbitzuko buruaren orde.

Adolfo Sesma Miguel Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko HLITa.

Itziar Aristondo Fernández Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzaitza eta Auditoretza Zerbitzuko burua.

Elixabete Martinez Iruretagoiena, Departamentuko idazkari teknikoa.

Idazkaria: M^a Carmen Delgado Vallejo, Kontratazio Zerbitzuko buruaren orde.

Ekintza honetarako mahaiburuak bi izendapen egin ditu: M^a Carmen Delgado Vallejo idazkari lanetarako eta Maider Apaolaza Lizarazu, bokal lanetarako, administrazio klausula partikularren agiriko 24. baldintzak dionaren arabera.

Goian aipatutako lekuan eta orduan, aurrez adierazitako kideekin, Kontratazio Mahaia eratu da lizitazioan aurkeztutako bi zenbakiko artxibo elektronikoa irekitzeko: **BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**. Kontratazio honen baldintza administratibo berezien agirian ezarri den bezala, balio judizio baten mende dauden irizpideen arabera eman behar delako haztapena, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak baitira. Ekintza honetan egiaztatuko da aurkeztutako eskaintza bakarrak agirian ezarritako irizpide guztiak sartu dituela.

2 zenbakiduneko artxibo elektronikoa ireki da, eta Kontratazio-mahaia ikusi du IDOM CONSULTING, ENGINEERING, ARCHITECTURE, SAU enpresaren eskaintza teknikoak atal guztiak sartu dituela. Eta oharririk edo erreklamaziorik egin ez dutenez gero, ekitaldia amaitutzat eman da. Prozedurarekin jarraitzeko teknikariari bidaliko zaio bere haztapenerako.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.

Donostian, 2019ko abenduaren 18an
Idazkaria, ordezkapenez

Sin.: M^a Carmen Delgado Vallejo